

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

**Behin-behineko onespena ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren 2019ko laugarren hiruhilekoko zerga erroldari**

Ediktua

Nik, José Ramón Molinuevo Lañak, Amurrioko (Araba) Udaleko alkateak,

Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko azaroaren 26an egindako bilkuran, behin-behinean onetsi zuen administrazio batzarretan hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta ezabatzeko zerbitzuaren tasaren zerga errolda, 2019ko laugarren hiruhilekoko (2019/1/S328).

Espediente hori ikusgai egongo da udalaren kontuhartzailetza atalean 15 egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa duen orok aztertu eta, egoki iritziz gero, erreklamazioak eta oharrak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat emango da.

Amurrio, 2020ko azaroaren 27a

*Alkatea*

*JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*